Bilboko Erregimendua XVI. eta XVII. mendeen bitartean: bazterketa eta erresistentzia aurrez aurre

Mikel Zabala Montoya
Historian Doktorea (Deustuko Unibertsitatea)

Artikulu honetan Goi Aro Berrian zehar Bilboko Erregimenduak izandako gorabehera batzuk dira aztergai. Bilboko hartu-emanak garrantzi handiko jarduera izanik, merkatariak Erregimendua (Hiribilduko gobernuko erakunde nagusiena zena) kontrolpean izaten saiatu ziren. Helburu hori betetzeko asmoz hainbat gizarte-talde kanporatu zuten, jokabide desberdinez baliatuta: batzuetan, gustuko ez zituzten hautagaiak auziperatuz; bestetan, ordenantza edota bestelako arau berriak indarrean sartuz. Noizbait, gatazka goi-mailako kideen arteko aurkakotasunen ondorioa izan zen. Enfrentamenduotan, ez zen izan kasu guztietan talde agintaria garailea. Dena dela, XVII. mendearen lehen herenean prozesu baztertzailea areagotu egin zen, maila jasangaitzetara heldu arte.

This piece of work analyses some events happened in Council meetings of Bilbao in the Early Modern Age. Trade in Bilbao was very active, therefore businessmen made the best of them to take over the main institution of local government, that is the Council. They expelled several groups from it by different means in order to control the election of representatives. Sometimes, the candidates were accused and brought to justice. Besides, they ruled new ordinances and other regulations. In many cases, there were also conflicts of interests between members of Bilbao's elite. The ruling classes did not succeed in every case. Anyway, this process of exclusion increased during the first third of the 17th. century. Finally, it became too difficult to bear.

1. Sarrera

Alkateak, hamabi Erregidoreek, Sindikoak eta Idazkariak osatutako Bilboko Erregimendua Antzinako Erregimeneko Hiribildu honen gorengo erakundea dugu. Izan ere, Bilbo bezalako udalerri handi batean, menpeko taldeen partaidetza gauzatzea zaila zen oso. Horrexegatik, auzokide guztien bilerak —Udalbatza Irekiak— goiz desagertu ziren. Erregimenduak, beraz, oso aginte handia izan zuen, eta menpeko taldeek ez zuten haren gaineko kontrolik, gainera.

Erregimenduko karguak urtero berritzen ziren[1]. Judikatura berriak aurreko kargudunek proposatutako hautagaien arteko zozketatik ateratzen ziren, betiere *San Pedro* eta *San Pablo* deitutako bi taldeen artean erdibana, eta Alkatea tartean.

Hautagaia izateko, eskakizun batzuk bete behar ziren. Lehenik eta behin, hamar urteko auzotasuna; Bilbo bezalako etengabeko mugimenduko itsasportu batean, etorri berrien partaidetza murrizteko bidea omen zen hori. Aurrekoari lotuta, odol-garbitasuna (hori ere etorkinen aurka zuzendutakoa): frogatzeko prozedura garestia zenez, dirudunek baino ez zuten bete ahal izango. Gaitasuna, berez, zehaztugabeko ezaugarria zen, baina hautagaien edonolako muga —fisiko zein intelektual— baztertzeko bermea zen, nonbait. Halaber, hogeita bost urteko gutxienezko adina. Ezkonduta egoteak, azkenik, eredu familiar nagusira egokitzera behartzen zuen (ohitura eta bizimodu zuzenei lotuta edo)[2]. Dena dela, partaidetza nabarmen murriztu zuten bestelako eskakizunak arautu ziren Aro Berria aurreratu ahala.

Denboraren poderioz gorpuztu zen prozedura. Lan honetan prozesu horren hasiera eta bilakabidea dira aztergai, gertakizun zalapartatsu edota deigarrienetariko batzuen bidez. Izan ere, Antzinako Erregimenaren amaierako Bilboko Erregimenduari buruz, dagoeneko, zertxobait dakigun arren[3], erakundea askoz ezezagunagoa da lehenbiziko mendeetan[4].

2. Chinchillaren akordioaren ondorioak: Bilboko Erregimendua XVI. mendeko lehenbiziko erdialdean

Begien bistan denez, bando-gerrak deitutako gatazkak hirietan ere eragina izan zuen. Oztopoak jarri ziren enfrentamendu horiek deuseztatzeko ahaleginen aurka. Bizkaiko Jaurerriko ezegonkortasuna bertan behera utziko zuen araudi berria gauzatzeko, Garci López de Chinchilla errege-ordezkaria azaldu zen[5]. Chinchillaren eskakizunei apal-apalik amore eman zien Bilbok, ziur asko kanpoko esku-sar-

1. Berehala azalduko denez, 1544. urtean Erregidoretzak betikotu arren, 1551.etik aurrera berriro aukeratu ziren.

2. Beste baldintzapen batzuek oligarkizatzea ekiditeko asmoa zuten. Hala nola, bi urteko hutsunea (kargu batetik bestera itxaron beharreko gutxienezko aldia) edota senideen artean elkarri botoa emateko debekua.

3. Ik. F. J. Guillamón Álvarez (1980: 153-165) edota P. Feijóo Caballero (1991), esaterako.

4. Hiribilduaren zazpiehungarren urteurrena ospatzeko antolatutako historiari buruzko kongresuan, azkenik, gai honi buruzko idazlana aurkeztu zen: S. Pérez Hernández (2003: 359-379).

5. Ondorengo urteetan Chinchillak izandako zailtasunen berri, G. Monreal Cíak (1974: 95) ematen du.

tzetzat hartzen zuenaren aurrean, Jaurerriak erakutsitako erresistentzia irmoari aurka egiteagatik, T. Guiard-ek adierazi bezala[6]. Bando-gerrak isilarazi eta errege--kontrol zorrotza finkatu nahian, 1483. urtean ezarritako hauteskundeetako arautegi berriak, ustez, bandoak kanporatuko zituen hauteskundeetatik:

> ...que de aqui adelante la elección de los dichos oficiales nin de los otros oficiales del concejo de que ende de yuso se fará mención que de nuevo se an de criar para entrar et estan en el dicho concejo non se faga nin se pueda faser por via de los dichos linajes nin vandos nin apellidos[7].

Dirudienez, gatazkak moteldu egin ziren ondorengo urteetan. Hala ere, sakoneko arazoen izaera aldatu zen ala ez, edota —moldatzekotan— alkateak nolakoak izan ziren ez dago oraingoz zehazki jakiterik. Borroka armatuak beherakada izan zuela ukatzerik ez badugu ere, bandokeriak ez ziren araudien bitartez ezabatu. Bandozaletasun hori aldatu zen, baina desagertu gabe, berrogeita hamar urte geroagoko gertakizunek egiaztatu zuten modura[8].

1505. urtean, legaltasun berria betearazteko estualdiren bat izan zuen justiziak, nonbait. Alkatearen kontrako erresistentzia erakutsi zuen Flores Arteagak, jendaurrean armarik ez eramateko agindua eman zionean[9].

Tamaina handiagoko iskanbila suertatu zen 1517.ean, Lope Sánchez de Arbolancha Alkate titularra Gaspar de Isasi Batxilerra Ordezko Alkate deitzeagatik Gortean zegoen bitartean[10]. Ordezko Alkate izendatu ahal izateko bete beharreko Erregimenduaren baimena saihestu zenez[11], aurreko eztabaidagaiak berpiztu ziren. Honako hau izan zen leporatutakoa: Lur Lauan auzotarturik egoteaz gain, «es paryente mayor del linaje de Ysasy, e uno de los escuderos principales de la Tierra Llana». Batxilerrak Erregimendutik irten nahi ez, eta iskanbila hasi zen. Juan Olarte Korrejidoreordeak —titularra kanpoan zela— Alkatetza bi egunez baliogabetzea erabaki zuen, tarte horretan itzulera beteko zelako ustean edo. Hala eta guztiz, itzuli eta gero, Diego de la Concha Korrejidore titularrak ebatzi gabe, Gortera bidali zuen auzia, bi aldeek horren berri eman zezaten bertan.

1532.ean Francisco López de Arbietok protesta aurkeztu zuen Errege Kontseiluaren aurrean. Arrazoia aurreko hauteskundeetan gertatutakoa zen:

> ...los del dicho linaje de Leguizamón tubieron el dicho Alcalde y oficiales, abiendo sydo elegidos [...] syn que en ellos obiesse persona de los otros linajes.

---

6. T. Guiard (1905: I, 137).

7. Bilboko Hiribilduak eta Garci López de Chinchillak sinatutako akordiorako, ik. T. Guiard (1905, I, 137-151).

8. Arrasateko kasua J.A. Achón Insaustik deskribatu du (1995: 202).

9. SAO, EK: 70 PS, 8. znbk. 1517.eko otsailaren 17an Hiribilduak eskuratutako Errege Probidentziak baimen zehatzik gabe armarik eramateko debekua aginduz E. J. Labayruk ezagutarazi zuen (1900: IV, 657-658).

10. SAO, EK: 28 PS, 3. znbk.

11. Urte haietan ordezkapen asko izan zen. Sarritan arazorik sorrarazi gabe. 1509.ean Balnas Batxilerra Ordezko Alkate izendatu zuten, eta ez zen protestarik piztu. Beste horrenbeste esan dezakegu 1515.eko Zurbano Batxilerraren edota hurrengo urteko Diego López de Castañedaren izendapenekin. Dena dela, 1515. urtean gorabeherak izan omen ziren hainbat kargudunek beren kabuz bertan behera uzteagatik zenbait akordio, Erregimenduari horren berri eman gabe (J. Enríquez Fernández *et al.*: 1995: 62, 210 eta 279). Are gehiago, 1510.ean ere protestaldiak izan ziren Udal Ordenantzak betetzen ez zirelako: A. E. Mañaricua (1954: 35).

Salaketak zioenez, aspalditik, Bilboko Hiribilduan, lau leinu ziren: Arbolancha, Basurto, Zurbaran eta Leguizamón. Auzia Kantzelaritzan bazegoen ere, karguak beraien artean banatu behar ziren, nonbait. Edozelan ere, Errege Kontseiluaren erabakiak —non hauteskundeak tirabirarik gabe burutzeko agintzen baitzen— ez zituen salaketaren aurreikuspenak asetu, leinuen arteko parekotasuna barik, Udal Ordenantzak betetzeko ebatzi zuen eta[12].

Bi urte geroago, salaketa berria aurkeztu zen; halako hartan Hiribilduko Sancho López de Recalde Fielak ezarritakoa, aurreko urteetako hauteskundeetan iskanbila handiak egon zirelako «so color de parentesco e parçialidades». Etorkizunean, iskanbilak saihesteko eta Ordenantzak betetzeko agintzen zuen ebazpenak[13].

1542.ean, berriz ere, iragankortasuna izan zen aitzakia gatazka eragiteko. García de Gueñes Bigarren Alkateak aginte-makila titularrari bueltatzeari muzin egin zion. Bere jarrera justifikatzeko argumentua zera zen: ustez, Alkateak lehenbiziko kanporaldiaren kasuan soil-soilik jarrai zezakeen karguan, eta titularra birritan kanporatu zen[14].

3. Bandokidetzak berpiztu eta kanporaketako lehen ahaleginak

Dirudienez, 1543. urtean, hauteskundeetako arautegia aldatzeko eragin zuen testuingurua lehenago deskribatutakoa izan zen. Merkatari batzuek Erregidoretzak betikotu zituzten judikatura bakoitzeko 650 dukataren truke. Aldi berean, prozedura berria indarrean sartu zen bi bandoak (oinaztar eta ganboatarrak) txandaka zitezen Alkatetzan urtero. Legegizona, Sindikoa, Eskribaua eta Diruzaina ere aldizkatu ziren aurrerantzean. Are gehiago: betikotutako Erregidoretzak ere, bi bandoen artean, parekotasunez, banatu behar ziren. Eta berorien eskuetan zegoen Hiribilduko erantzukizunik nagusiena, hau da, aipatutako gainerako kargu guztiak hautatzea (Alkatea izan ezik)[15].

Edozelan ere, ahaleginak ez zuen aurrera egiterik izan. Judikaturetatik kanpo gelditutako merkatariek ez zuten bazterketa onartu. 1549.ean Erregimenduak berak eta Kontsuletxeak elkarrekin luzatutako proposamena dugu horren lekuko. Bertan, kargu guztiak aukerazkoak izatea eta bandoen artean banatzea arautu zen, nahiz eta bandoak izendatzeko *San Pedro* eta *San Pablo* goitizenak erabili[16]. Prebosteak Erregimenduko bileretan botoa emateko zuen ustezko eskubideagatik, Bilboko Hiribilduak Tristán de Leguizamónen aurkako auzia mantentzen zuen bitartean burutu zen arautegian izandako aldaketa[17]. Erregimenduko bandoen arteko balizko desorekaren argudioei esker, merkatariek beraiek zirriborratutako hauteskundeetako arautegi berriaren proposamena onetsi zuen Gorteak, inolako oztoporik gabe, nonbait, bake iraunkorraren bermetzat jotzen zuen eta.

---

12. BFAA: UA: Bilbo, AA: 14/1/7.

13. BFAA: UA: Bilbo, AA: 14/1/8. Salaketak nolabaiteko oinarria ba omen zeukan, hauteskundeetako bezperan izan zen eta.

14. BFAA: UA: Bilbo, AA: 14/1/10: Martín de Ugarteren aldeko Errege Eginkizuna (1542).

15. E. J. Labayruk argitara eman zuen 1544.eko martxoaren 4ko akordioa (1900: IV, 236).

16. Cf. A. E. Mañaricua (1954: 106-108).

17. 1549.eko irailaren 30ean Tristán de Leguizamónek eskubide eztabaidagarriari uko egin zion, oinaztarra zela argudiatuz. Bitxia bada ere, Kantzelaritzak Lope de Leguizamónen aldeko sententzia ezagutarazi zuen aurreko egunean Portugaleteko Hiribilduaren kontra mantentzen zuen auzian eztabaidagai berdinagatik. VEKA: BE: 208 PS, 1. znbk.

1552.ean[18] sartu zen indarrean prozedura berria. Ordaindu beharreko diru-kopuruaren nahiko portzentaje handia —5.016 dukata, hain zuzen ere— elikagaien gaineko zergaren bidez batu zen. Kargudun ohi batzuk, inolako lotsarik gabe, judikaturaren ordainketa birritan eskatzera ausartu ziren. 1552.ean jasotako ordainketa-agiria[19] kontuan hartu gabe, Pedro de Arbietok Kantzelaritzan jarraitzen zuen sei urte geroago, ustez hari zegokizkion 650 dukata eta Juan Martínez de Ceberioren oinordekoa zen Mari Pérez de Ceberio emaztearen beste horrenbesteko erreklamazioa aurrera egin nahian[20]. Jokabide horren ondorioa kargudun ohienganako mesfidantza zabaltzea izan zen: kargudun ohiak Erregimendutik baztertuta gelditu ziren hainbat urtez. Edozelan ere, hirurogeigarreneko hamarkadan, Erregidore ohiak —horietariko batzuk, behintzat— sartu ziren berriro[21].

4. Hauteskundeetako arautegiaren finkatzea eta ondorengo tirabirak

Hautaketetako prozedurak, egokitzapenak izanda ere, Aro Berri osoan zehar iraun zuen. Baina jarraikortasunak ez du, berez, bakerik adierazten; ezta egonkortasunik ere. Izan ere, kargudun izateko borroka eta azpijokoak erakarri zituzten hauteskundeek. Erabateko ondorio logikoa izan zen, garai berean egoera ekonomiko mesedegarriari esker, aberastu berriak biderkatu baitziren; eta, horri lotuta, Erregimenduan sartzeko eskariak gora egin zuela kontuan hartzen badugu.

1557. urtean, Juan Pérez de Guiliz abokatua kanporatu zuten Erregimenduan jesarlekua aldarrikatzeagatik[22]. Hurrengo urtean, desadostasunak bi talde banandu zituen. *San Pablo* taldeko lau Erregidorek hauteskundeetara ez joateko alegazioa aurkeztu zuten. Bilerara azaldutako kargudunek Martín de Arana aukeratu zuten Alkate. Hala ere, berehala deuseztatu zen bozketa, ustez, Arana Bigarren Alkatea izan zelako aurreko urtean. Ziur asko kanpoan gelditutako *San Pablo* taldeko Erregidoreen eskariz —eta horien beste bi taldekideak ados ez egon arren—, Bigarren Alkateak ordezkatzeko eskuartea baztertu zen, gutxienezko adina ez zuela betetzen argudiatuz. Azkenik, Alkatetzarako hauteskunde osoa errepikatu behar izan zen[23].

1562.ean Diego de Olabarri Idazkaria San Juan de Isasi Alkate berriaz batere fidatzen ez zenez gero, Pedro de Ugarte aurreko Alkatearen erresidentzia Lope de Montenegro Korrejidorearen bitartez bideratzen saiatu zen, jarraitutako usadioa saihestuz. Eskribauak hainbat delitu aipatzen zituen: ustelkeria debekatuta zeuden merkantzia-sarreretan, kartzelaren eta ospitalearen axolagabeko kudeaketa, menpekoen bitarteko jauntxokeria, jarrera ez-moralen aurreko arduragabekeria, etab. Olabarrik bere jokabidea justifikatu zuen: kargudun berriak partaide eta laguntzaileak ziren delituetan. Ugartek, bere aldetik, akusazioak arbuiatu zituen,

18. BFAA: UA: Bilbo, AA: 199/1/47.
19. A. E. Mañaricua (1954: 36).
20. VEKA: BE: 665 PS, 1. znbk. Zeresanik ez: erreklamazioak ezin izan zuen aurrera egin.
21. BFAA: UA: Bilbo, AA: 14/1/23.
22. VEKA: BE: 851 PS, 2. znbk. Abokatuaren argudioa: Hiribilduaren auzietan erabiltzen zen diru-kopurua handia zen.
23. VEKA: BE: 850 PS, 5. znbk. Auzian sententzia falta da. Gertakizun hauen guztien amaiera ez dut ezagutzen, urte hartako Akta Libururik ez dago eta.

eta bien arteko etsaitasuna argudiatu zuen. Ez dakit zein izan zen gai honi buruzko benetako bertsioa. Neure iritziz, Erregimenduaren barne-barnean bazeuden diferentziak eta kutunkeriak, nola edo hala. Edozelan ere, Montenegrok ez zion jaramonik egin Idazkariaren erreklamazioari[24].

5. Oligarkizatzearen hasiera

Oraingoz ez da garbi aurkitu Bilboko Erregimenduko enfrentamenduen ardatz nagusi bat —egotekotan— orain arte azaldutakoaren arabera. Puntu horretatik aurrera, berriz, lehenago deskribatutakoen antzeko aurkakotasunak —beste izendapen hoberik izan ezean, talde agintariko barne-tirabirak deitzen ditudanak— ez ezik, bestelako liskar berriak ere gorpuzten hasi ziren. Aurreneko aldiz, gizarte-talde edota talde profesional jakin batzuen aurkako erasoaldiak azaleratu ziren; nik uste dut, *strictu sensu*, oligarkizatze-prozesu bati eman ziotela hasiera.

Dena dela, lehen kasu hau barne-kontraesanen multzoan sailkatu beharra dago. Bandokidetza argudio baztertzailetzat hartu zen. 1584. urtean, Martín de Enderica *San Pablo* taldeko ordezkari aurkeztea errefusatu zen, *San Pedro*-koa zela argudiatuz[25]. Irizpide bera ez zen tinkotasunez bete lehenago[26]. Erregimendura desbideratutako aldez aurreko bestelako norgehiagokarik zegoenentz ez dakit. Hala ere, Juan de Endericak, kanporatutakoaren aitak, mendekua hartu zuen eta Bilboko goi-mailako merkatarien irregulartasunak salatu zituen. Beraz, begien bistan dago[27] erakundeetako enfrentamenduak eta ekonomia-arlokoak nahasten zirela.

Bestalde, adierazgarria izan daiteke abokatuek eta eskribauek (ogibide liberalak) Erregimenduan izandako bilakabidearen analisia, goian aipatutako oligarkizatze-prozesuaren berri emateko. Hona hemen datuak:

24. 1563.eko ekainaren 7an izandako sententziaren arabera, ondorengo Alkateari zegokion erresidentzia ezagutzea. Olabarrik Kantzelaritzan ere ez omen zuen ezer lortu (1571.eko urriaren 23an antzeko ebazpena izan zen eta). BFAA: UA: Bilbo, AA: 56/2/21 (1591.eko otsailaren 8ko Errege Eginkizuna).

25. BFAA: UA: Bilbo, AA: 308/1/26: Martín de Enderica *San Pablo* taldetik ez aukeratzeko akordioa, *San Pedro*-ko taldekidea izatearren (1583).

26. Melchor Bilbao *San Pedro* taldeak aurkeztu zuen Hirugarren Alkate 1558.ean; urte berean, *San Pablo*-k Bigarrenerako proposatu zuen. Aipatutako datan, Juan Martínez de Uríbarrik *San Pedro*-ren Erregidoretza bete zuen, 1563.ean *San Pablo* taldearen beste bat izan zuen bitartean.

27. Are gehiago: aipatutako neurriaren kontrako kargudunak pixkanaka-pixkanaka desagertuz joan ziren Erregimendutik. Martín de Enderica, merkataria izanik ere, sekula ez zen Kontsuletxeko karguduna izan, aita ez bezala.



Iturria: Nik neuk osatutako grafikoa da, (M. Zabala Montoya, 2001: 28-54) lanean argitaratutako datuak oinarritzat hartuz.

Oharra: Sailak ez du Idazkaritza kontuan hartzen.

XVI. mendeko azkeneko laurdenean sartu ziren Bilboko Udalean ogibide liberalak, merkatari-kopuruaren beherakadarekin batera. Merkatarien erreakzioa berehalakoa izan zen.

XVI. mendeko 80ko hamarkadan, oztopo nabarmenak ipini ziren eskribauak Erregimenduan sartzeko ahaleginen aurka. 1582.eko hauteskundeetan, auzia abian jarri zen, Erregidoretzaren eta Zenbakizko Eskribautzen arteko ustezko bateraezintasunagatik. Diego Álvarez de Solorzano Korrejidorearen autoak zioenez, Udaleko ohorezko karguetarako hautagaia izan aurretik eskribautza utzi beharra zegoen. Ochoa de Bilbao la Vieja eskribaua karguan onartu zuten, bozketak izan baino egun batzuk lehenago eskribautzari muzin egin omen ziolako. Baina eskribauek ez zuten Korrejidorearen erabakia onartu eta Kantzelaritzara jo zuten. Bateraezintasuna berretsi zuten han, baina, eskribautza lagatzeko, hauteskundeetatik aurrera hiru eguneko epemuga ezarri zen[28].

1587.ean, Idazkaritza gainerako karguekin berdintzeko ahalegina egon zen, gutxienezko bi urteko derrigorrezko hutsunearen bidez. Pedro de Mendiaren kasua izan zen horren eragilea. Eskribau horrek Idazkaritza bete zuen 1586.ean, eta Erregidoretza hurrengo urtean[29].

Jarraian, atzerritarrak eta zenbait ogibide eraso zituen talde agintariak.

1592.ean, Hiribildua bi aitzakiaz baliatzen saiatu zen Erregimenduan sartzeko murriztapenak areagotzeko asmoz: auzotartasuna eta gaitasun ekonomikoa. Halako hartan, Bilbon bizi zen Martín de Aguirre merkatari lapurtarra izan zen biktima. Hiribilduaren esanetan, kanpotarrak hirian auzatzen ziren, bertakoek ez zituztelako ordaintzen Prebostetza-Eskubideak. Bestalde, atzerritarrez betetako Bilbo bezalako portu batean, Erregimenduan kanpotarrak onartzea ez ei zen batere

28. 1583.eko uztailaren 29an Kantzelaritzako Presidenteak eta Entzuleek bertako Epaile Nagusiak 1582.eko urriaren 3an ebatzitakoa berretsi zuten. Bilboko Udalak prozesu horren Errege Eginzkina eskatu zuen. BFAA: UA: Bilbo, AA: 56/1/10.

29. Errefusatutako karguduna hauxe izan zen, baina araua ez omen zuten tinkotasunez bete aurreko urteetan. Sebastián de Hozek Idazkaritza bete zuen 1552. eta 1554. urteetan; Ochoa de Bilbao la Viejak 1563. eta 1564.ean; Pedro de Urruñok 1573., 1575. eta 1577. urteetan; Lope García de Meñacak 1574. eta 1576.ean; Martín Iñiguez de Hormaechek, azkenik, 1579. eta 1581.ean.

egokia, ezin baitziren bereizi katoliko eta leialak luterano eta arerioengandik. Zalantzarik gabe, halako argumentuak Koroaren sentikortasun ekonomikoa edota estrategikoa jotzekoak ziren. Aguirrek, berriz, 1585.ean kaparetasunaren egiaztagiria aurkeztu zuela ziurtatzen zuen[30]. Are gehiago, bere esanetan, gaitasun ekonomiko nabarmena izateaz gainera[31], lehenago ere karguren bat bete zuen[32]. Egia esan, jokoan zegoena 1592.eko iraileko Ordenantza —Erregimenduan parte hartzeko eskakizunak areagotzen zituena— baino ez zen:

> Y que en quanto toca a los dichos officios de la rrepública, todos los que así se huvieren avecindado y alcanzado vezindad en ella [...] no puedan açender a ninguno de los dichos offiçios y ser admitidos a ellos, ni tenerlos en esta villa, si no hubiere bivido en ella después de ser tal vezino con las calidades arriba dichas por el dicho tiempo de los dichos 10 años, y que después de averlos bivido e pasado con la dicha vezindad, para que puedan ser admitidos a los dichos offiçios, aya de constar y conste primero al dicho Justiçia y Regimiento que tienen cada 500 ducados de haçienda en esta dicha villa y sus arrabales e juridición, y en todo este Señorío e Villas e Çiudad del en bienes raízes o çensos, que mostrándolo así puedan açender a qualquier de los dichos offiçios, y no de otra suerte[33].

Bitxia bada ere, gaitasun ekonomikoa ez zen indarrean sartu 1593.ean onetsitako Ordenantzetan. Baina, legaltasunean oinarrituta zegoen ala ez kontuan hartu gabe, talde agintaria betearazten ahalegindu zen hurrengo urteetan, nola edo hala. Edozelan ere, aztergai dugun kasura itzuliz, eztabaidagaia ez zen maila ekonomikoa, auzotartasunaren epea baizik. Hiribilduak zortzi urtekoa baino ez zela zioen. Funts handirik gabeko argudioa, jakina, egiaztagiriaren arabera. Horrexegatik Gaztelako Kontseiluak Aguirreren Alkatetzarako hautagarritasuna balioztatu zuen[34].

1598.eko bozketak zirela medio, garaiko auzi korapilatsuenetako bat izan zen. Lehenago, Justiziaren ikustaldiak jaso beharreko dendariak karguetara aurkeztea debekatu zuen Juan Pardo Korrejidorearen auto batek. Kanporatutakoek hauteskunde berriak baliogabe zitezen apelatu zuten, eta Epailearen aurrean errepikatzea agintzen zuen sententzia lortu zuten. Baina, Bilboko Erregimenduak muzin egin zion agindutakoa betetzeari, eta iskanbila zaratatsua suertatu zen. Erregimenduko kargudunek gelditutako egunean Udaletxera joateko debekua plazaratu zuten, heriotza-zigorra eta ondarearen bahiketaren mehatxupean. Salatarien esanetan:

> ...queriendo ellos cumplir y llevar a devido efeto la Carta Executoria de cuio cunplimiento se trata, el Alcalde, Regidores y Procurador General y Preboste Mayor de la dicha Villa se lo avían rresistido, estorvado e ynpedido a mano armada, haçiéndose fuertes y teniente gente prebenida y armada, ansí eclesiástica como seglar en la calle de Artecalle [...] y avían dicho que avían de matar a los que tratasen de la nueva elección[35].

30. Eta hala zen. Ik. M. Basas Fernández (1958: 8).

31. Ezkontzari esker eta baita hainbat lur-sailen jabe izateagatik ere. Hiribilduari 400 dukata mailegatu zion. Dena dela, berak ere kontutan hartu zituen Erregetzaren interesak, Medina Sidoniaren itsas armadari hornigaiak eraman zizkiola gogoraraziz.

32. 1591.ean Erregidoretzarako zozketatu omen zuten. Diruzaintza betetzen zuen une hartan.

33. MAHN: DK: 28361 PS, 4. znbk.

34. 1595.eko ekainaren 17ko sententziaren arabera.

35. VEKA: BE: 84 PS, 1. znbk. Hurrengo aipamenerako, berdin.

Era berean, Pedro Fernández de Angulo magistratuaren sarrera eragotzi zuten indarrez. Izan ere, atea irekitzeko agindu zuenean:

> ...verbalmente rrequirió al dicho Alcalde le mandase abrir las puertas del Consistorio para poner en execución la dicha Carta Executoria, y el dicho Alcalde respondió que no le oía bien, y que se lo declarase mostrando al pareçer de este testigo alguna forma de burla y escarnio.

Halako hartan jantzigintzan aritutako merkatari batzuk baztertzen saiatu ziren, kopuru txikiak saldu eta erosten zituztelako eta Justiziaren bisitak jasotzen zituztelako. Merkatari atzerritarrak etxeratzea ere leporatu zieten[36]. Baina gezurtzat jo zuten akusatutakoek ustezko gaitasun ekonomiko eskasa: beraiek ez zituzten eguneroko merkantziak salerosten (elikagaiak esaterako), baizik eta oso multzo handietan trafikatzen zirenak (urre eta zetazkoak, edota salgai frantziar eta flandestarrak, besteak beste). Era berean, gutxikako salerosketetan parte hartu izana eta erbesteko merkatariak babestu izana leporatu zieten salatutakoek iraganeko kargudun ohiei[37]. Argudio horiek guztiak nabarmentzekoak dira, bi taldeek onartzen baitzuten judikaturak betetzea merkatari handiei baino ez zegokiela. Dena dela, kanporatutakoek aurreikusten zuten gerta zitekeena, Erregimendua berrogei errentadunen eskuetan utziz gero. Beraien esanetan, karguak berriz betikotuko ziren hiruzpalau urteren buruan. Edozelan ere, auzi honen helburu murrizgarria ez dago zalantzan jartzerik.

Sententziak gutxikako salerosketetan jardun zutenak baino ez zituen baztertu[38]. Auziperatutako batzuek —aurrez Erregimendu edota Kontsuletxeko partaideak izandakoak— karguak betetzen jarraitu ahal izan zuten[39]. Baina gaitasun ekonomiko xumeagoko beste batzuk, Martín Ruiz de Elorza edo Pedro de Plaza esaterako, sekula ez ziren judikaturetara itzuli. Udala garaile atera omen zen auzitik, bere helburua lortu zuelako. Lehenago Martín de Aguirrek berak adierazi zuenez, auzia aurrera eramateak neurrigabeko gastuak sorraraziko zizkien inplikatutakoei (horrexegatik proposatzen zien hitzartutako konponbidera heltzea)[40].

---

36. VEKA: BE: 263 PS, 4. znbk. eta atal bereko 254 PS, 1. znbk. Diego de Guinea eta Ochoa de Urixtaren kontra zuzendutako azkeneko akusazio hau ez zen nahitaez funtsik gabekoa izan behar. Izan ere, biak atzerritarrekin batera merkataritza-jardueretan agertzen ziren. BAHP: NA: Esk. Martín de Mallona Zabala (Bilbo): 5591 PS (non 1598.eko urriaren 18an Diego de Guinea Donibane Lohizunekoa zen Martín de Aranederrekin azaltzen zen) eta atal bereko Esk. Gaspar de Villela (Bilbo): 3878 PS (1599.eko ekainaren 3an Ochoa de Urixta Julian Mixel frantziarrarekin ageri zen).

37. Honako hauek ziren akusatutakoak: Andrés de Larrea (zahagiak salerosten ibiltzeaz gain, ardo-saltzailea zen tabernan), Francisco de Nobia (Donibane Lohizunetik etorritako bakailaoa erosi zuena), Agustín de Villarreal (merkantzia frantziarrak jaso zituena) edota Pedro de Sojo (oliben inportatzailea zena). Erregimendu berriko kargudunen eta, aldi berean, mahastietako jabe batzuen jokabide maltzurrak eta auzokideen interesen kontrakoak gaitzesten ziren. VEKA: BE: 84 PS, 1. znbk.

38. A. E. Mañaricuak laburbildu zuen prozesua (1954: 11). Errege Eginkizuna hemen aurkitzen da: BFAA: UA: Bilbo, AA: 63/1/3.

39. Gizarte-talde bereko sendien edota gizabanakoen elkarren kontrako aurkakotasuna ere ez da baztertu behar. Azkeneko kasu horretan Udal judikaturetatik kanporatzeko benetako asmorik egon zitekeenik zalantzan jar liteke.

40. Bere prozesuari lotutako eralkipenak 2.000 dukatetakoak zirela zioen. VEKA: BE: 84 PS, 1. znbk.

Edozein modutan ere, atzerritarrek Erregimenduan parte hartzeko debekua berehala eskuratu zen, segurtasun-neurrien aitzakiari esker[41].

1606. urtearen inguruan, Juan de Idiaquez Prebosteak Erregimenduan botoa emateko ustezko eskubidea aldarrikatu zuen. Egia esan, Idiaquez puntu horretaz baliatu zen Udalaren kontra jotzeko, garai hartan Prebosteak erakunde bilbotarraren aurka beste auzi bat mantentzen zuelako, Korrejidorearen soldataren gehigarriaren ordainketagatik[42].

1607.ean, Erregimenduaren jarrera baztertzailea azaleratu zen erabateko argitasunez. Aldi berean, Bilboko Udalean parte hartu ahal izateko menpeko taldeen mugapenak ere agerian gelditu ziren. Aipatutako urtean, ofizialak ziren eskulangile batzuk judikaturak eskuratzeko aukerak aztertu zituzten. Legaltasunean oinarrituz gero, gauzatzeko ezintasuna konprenitu ondoren, azpijokoen bidez lortzea planteatu zuten. Izan ere, Erregimendu alternatiboa antolatu zuten (bertako Alkatea Felipe de San Pelayo galdatzailea izango zen)[43]. Ofizial haien aldeko sententzia garaipen pirrikotzat har dezakegu, baliabiderik gabe edo, handik aurrera batek ere ez zuelako sartzerik izan Erregimenduan[44].

Bilbotar askok Domingo Martínez de Isasi handikiari (María Manrique de Leguizamónen senarra zena) zioten gorrotoa bi arrazoiri leporatzen zioten garaiko lekukoek: gipuzkoarra izateari eta hainbat urtez Bilboko Udalaren kontra ohorezko lehentasunagatik izandako auziei[45]. Martínez de Isasik sekula ez zuen Erregimenduko kargurik bete, baina bere interesak aurrera atera ahal izan zituen, bere ahaideriari esker eta zeukan gaitasun ekonomikoaren bidez. Horretarako, legaltasuna zapaldu zuen inoiz, eragin zitezkeen erreakzio bortitzak kontuan hartu gabe. 1608. urtean, kargudun batzuek Leguizamón dorretxearen ondoko hormaren salmentaren eskritura luzatu zioten Martínez de Isasiri. Azkeneko horren bitartekaritza —Prebosteak Erregimenduan bozkatzeko erreklamazioan egindakoa, hain zuzen— saritu zen hala[46]. Azkenik, ustelkeriaren erantzukizunak deuseztatu ziren, baina

41. 1599. urtean. T. Guiard (1906: II, 299).

42. VEKA: BE: 273 PS, 2. znbk. 1609.eko otsailaren 7ko Kantzelaritzako Presidentearen eta Entzuleen sententziak, aurreko Epaile Nagusiarena eta Korrejidorearena onesten zituenak, Prebosteak Korrejidorearen 150 dukatatako soldata herenetan urtero ordain zezan agintzen zuen.

43. Honako hau izan zen lehen instantziako prozesua: BFAA: AJ: Korr.: 551 PS, 20. znbk. Beste hau izan zen apelazioa: VEKA: BE: 1523 PS, 6. znbk. eta atal bereko 1529 PS, 15. znbk. Errege Eginkizuna honako agiri honetan dago: BFAA: UA: Bilbo, AA: 33/1/3. Laburbildutako gertakizunak eta interpretazio baterako, azkenik, ik. J. C. Areizaga *et al.* (1988: 309-316).

44. Lázaro de Ascain hesietako artisau ospetsuari ofizialen bilera batera joateko eskatu omen zioten. Beronek emandako erantzuna (ezezkoa justifikatzeko) adierazgarria da oso: «arto rregimiento hera para este testigo travajar y criar sus hijos.» VEKA: BE: 1523 PS, 6. znbk.

45. Antonio de Mendozak hala ziurtatzen zuen, ik. A. Otazu y Llana (1973: 131). Udalaren aurka izandako tirabira ezagunenetakoak San Antongo elizako belaunaulki batengatik eta alarde batera ez aurkezteagatik gertatu ziren. Cf. BFAA: UA: Bilbo, AA: 221/1/7 eta atal bereko 309/1/21. Eztabaidagaiak Kalagorri, Valladolid eta Madrilgo auzitegietan aztertu ziren.

46. BFAA: AJ, Korr.: 1284 PS, 19. znbk. eta VEKA: BE: 290 PS, 1. znbk. Auzia Hiribilduaren izenean jarraitzea komenigarria zen ala ez eztabaida zedin Udalbatza Irekia eskatu zen 1610.ean. Hogeiren bat pertsona bildu zen: «y todos los dichos vecinos, sin faltar ninguno dixeron que les parezía y sus botos y animos heran de que se siguiesen los dichos pleytos en nonre desta dicha villa». BAHP: NA: Esk. Francisco de Allende (Bilbo): 2529 PS.

kargudun batzuk Erregimendutik baztertuta gelditu ziren auziak iraun zuen bitartean[47].

6. Eraso baztertzaile berria

Orain arte azaldu denez, talde agintariaren ekimen baztertzaile batzuek —itxuraz, behintzat— porrot egin zuten. XVII. mendeko lehenengo hamarkadaren amaieran eta hurrengoan zehar helburu bereko ahalegin berriak (zenbait urtez Udal kargudun izateko aukerak nabarmen gutxitu zituztenak) antolatu ziren.

1616.eko hauteskundeetan izandako Erregidore batzuen irregulartasunak salatu ziren. Xedatutako hautagaien kopurua baino kide gehiago zozketatzen saiatu zen Juan de Jugo. Juan de Zubiaur, berriz, Gortean zegoen Juan de Zamudio kargudunaren izenean bozkatzen ahalegindu zen[48]. Azkenik, Udal Ordenantzak aldatu ziren berriro. Erregimenduan sartu ahal izateko eskakizunak zehetasunez arautu ziren:

> ...ordenaron que los tales tengan veinte y cinco años cumplidos, y mil ducados de hacienda, y de allí arriba; y que sean hijosdalgo, limpios de toda mala raza [...] y vecinos y naturales de esta Villa, y Reynos, ó hayan tenido en la Villa la vecindad de diez años precisamente, primero que sean sorteados, y que no usen los unos y otros oficios mecánicos, ni traten en mantenimientos por menudos, ni los hagan vender, ni sean obligados de abastecer qualquier género[49].

Lehenbiziko aldiz sartu zen indarrean gutxienezko gaitasun ekonomikoa[50]. Puntu horrek kontrako erreakzioak sorrarazi zituen handik gutxira.

Dena dela, urte haietan, talde agintariaren helburu nagusiena Erregimendutik ogibide liberalak kanporatzea izan zen. Testuinguru horretan ulertu behar dira, nik uste, garaiko auzi batzuk.

Lehenbizikoa 1620.ean gertatu zen, eta aurreko urtean Idazkaria izandako Antonio de Landaverde Erregidorearen aurka zuzendu zuten. Bilboko kargudunek eskribautza utz zezan exijitu zioten baina Landaverdek erregistro judizialak baino ez zituela lagako adierazi zuen. Bilboko Udalak Zenbakizko Eskribauak gaitzesten zituen elkarren interesen alde ari zirelako eta merkatari atzerritarren esanetara zeudelako[51]. Auzia Kantzelaritzaraino heldu zen, eta bertan Hiribilduak irabazi zuen:

---

47. BFAA: UA: Bilbo, AA: 14/1/28 eta, atal bereko, 14/1/29. Juan Ochoa de Rotaetak ere bazterketa jasan zuen, gaiari buruzko hainbat agiri Hiribilduari eman nahi ez izateagatik. BFAA: UA: Bilbo, AA: 56/1/16 eta BAHP: NA: Francisco de Allende (Bilbo): 2529 PS.

48. BFAA: UA: Bilbo, AA: 14/1/30.

49. T. Guiard (1906: II, 298-307).

50. Hasieran, izaera baztertzaile zorrotzagoak planteatu omen ziren, 1622.ean indarrean sartu zen bileretako akordioak sekretuan gordetzea, edota urtebete baino gutxiagoko absentziak onartzea, besteak beste. BFAA: UA: Bilbo, AA: 253/1/5.

51. Lehen puntuak ba omen zeukan nolabaiteko oinarria (1621.ean San Markosen Kofradiak Kantzelaritzako auzietan ordezkatzeko ahaldunak bidali zituen, adibidez), bigarrenak ez bezala (beste hainbat kargudunek ere erbesteko merkatariak babestu zituzten, inolako bazterketarik izan gabe). BAHP: NA: Diego de Zamudio (Bilbo): 4038 PS.

aurrerantzean eskribauek ez zuten jarduerarik bete ahal izango Erregidoretzak irauten zuen bitartean[52].

1623. urtean, baztertutako hautagaia Domingo Ortiz de Zornoza izan zen, ustez, gutxienezko hutsunea errespetatu ez izanagatik. 1622.ean Sindikatura bete zuela leporatzen zioten, baina berak behin-behineko kargua izan zela argudiatzen zuen (Martín Ochoa de Ayala Perea izendatu omen zuten Sindiko titular)[53].

1626.ean, abokatuen kontrako eztabaida berpiztu zen, beraien gizarte-maila kolokan jartzeko asmoz. Legegizonek ez zuten derrigorrezko zubiko zaintza-txandetan parte hartu nahi, aurreko mendean bezala, beraien gizarte-maila handiaren aitzakia erabiliz[54]. Jakina, inplikatutako legegizonak Bilboko Udal karguetatik kanpo gelditu ziren auzia luzatu zen bitartean[55].

1631.eko hauteskundeetan, botikariak izan ziren baztertzekoak, nahiz eta oro har maila ekonomiko dezentea izan. Dendetako ikustaldietako argumentu ezagunari eutsi zion behin eta berriro hiribilduak. Aldi berean, beraien gizarte-maila gutxiesten zuen:

> ...porque los officios de Rexidor y Alcalde de la dicha villa eran calificados y no le podían tener sino personas calificadas, nobles y principales, que no tuviesen ofiçios ordinarios y banos [...] quedaría defraudada la dicha ley porque por la dicha villa su parte era de las más ylustres en el Nuestro Reyno, y populosas y de más vecindad, donde avía muchos caballeros de avitos y rentas, capitanes, y otra mucha gente de ynportancia, y con sus rrentas y haciendas que tenían bibían, los quales solían ser Regidores y Alcaldes[56].

Erregimenduan parte-hartzea eragotzi baino ez zuen nahi Bilboko Udalak. Izan ere, botikariekin batera Martín de Uría ere baztertu zuten, nahiz eta hauteskundeak hasi aurretik botikan lan egiteari muzin egin. Bestalde, bozketa berean, Juan Bautista de Lecue kanporatu zuten, ustez, ez zuelako osatzen kargudun izateko bete beharreko gutxienezko maila ekonomikoa. Kantzelaritzako apelazioek gatazkak luzatu zituzten baztertutakoen kaltetan, nahiz eta, azkenik, aldeko sententziak izan[57].

Horrenbestez, Gatz Estankoaren Matxinadaren garaian murgilduko ginateke, baina horren analisiak —jakina— lan honen ahalbideak gaindituko lituzke.

---

52. BFAA: UA: Bilbo, AA: 56/1/17. 1620.eko ekainaren 12an izandako Presidentearen eta Entzuleen sententzia.

53. Eztabaida honen azpian 1630.eko Konkordiari buruzko desadostasun ideologikoak egon zitezkeen, Ortiz de Zornoza hasierako zirriborroaren defendatzaile sutsuenetarikoa izan zen eta.

54. VEKA: BE: 1012 PS, 1. znbk. Auzia 1626.eko azaroaren 16an hasi omen zen, Hiribilduaren eskaera betetzeari uko egitean.

55. 1628.eko hauteskundeetan, Gaspar de Teca Anuncibay ez zen hautagai modura onartu. VEKA: 1007 PS, 1. znbk.

56. VEKA: EE: 1305 PS, 80. znbk.

57. Botikarien auzirako, ik. VEKA: BE: 289 PS, 5. znbk. Honako hau da 1633.eko apirilaren 4ko Errege Eginkizuna: VEKA: EE: 1305 PS, 80. znbk. Juan Bautista de Lecueri dagokionez, 1631.eko azaroaren 7ko sententzia ikusteko, non hauteskundeak errepikatzea ebazten zen, cf. VEKA: BES: 4. K. Hemen dira argumentu batzuk: BAHP: NA: Esk. Martín de Laveaga (Bilbo): 5535 PS.

7. Ondorioak

Aurreko orrietan Bilboko Erregimenduak Goi Aro Berrian izandako gorabehera ikusgarrienetako batzuk gainbegiratu ditut. Aipatutako erakundean elkarren aurka jotzen zuten interes kontrajarriek, eta etengabeko gatazkak pizten ziren. Karguak betikotzeak ez zuen finkatzerik izan, kaltetutakoek oso eragin handia zeukaten eta. Baina judikaturak hauteskundeen bitartez osatzen jarraitu arren, Erregimenduaren kontrolak eragindako enfrentamenduak biderkatu egin ziren 1552. urtetik aurrera.

Testuinguru horretan, Gatz Estankoaren Matxinadan lehertutako kontraesanen aurrekariak XVI. mendean, gutxienez, aurki daitezke. Hala ere, Bilboko Erregimenduan izandako oligarkizatze-prozesua larriagotu egin zen zorigaiztoko urteetara hurbildu ahala. Merkatarien kopurua murriztuta, talde agintariak hainbat gizarte-talde baztertzeko erasoaldiak egin zituen arau berrien edota auzien bidez, eskakizun ekonomikoen zein profesionalen bitartez. Aldi berean, talde agintariaren barne-tirabirak ere azaleratu ziren. 1632.etik 1634.era Bilbon izandako zenbait jokabide errazago uler daitezke honen guztiaren harira, nik uste.

8. Inprimatutako iturriak eta bibliografia

Achón Insausti, J. A. (1995): *"A voz de concejo". Linaje y corporación urbana en la constitución de la Provincia de Gipuzkoa: los Báñez y Mondragón, siglos XIII-XVI*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

Areizaga, J. C. *et al.* (1988): "Los agavillados de 1607: sobre los antecedentes urbanos de la Matxinada de la Sal" in *II. Euskal Mundu-Biltzarra. Euskal Herriaren Historiari buruzko biltzarra. III. Alea. Ekonomia, Gizartea eta Kultura Antzinako Erregimenean*, Txertoa, Donostia.

Basas Fernández, M. (1958): *La Sección de Genealogías del Archivo Municipal de Bilbao* Asociación de Hidalgos a Fuero de España, Madril.

Enríquez Fernández, J.; *et al.* (1995): *Libro de Acuerdos y Decretos Municipales de la Villa de Bilbao (1509 y 1515)*, Eusko Ikaskuntza, Bilbo.

Feijóo Caballero, P. (1991): *Bizkaia y Bilbao en tiempos de la Revolución Francesa* Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.

Guiard, T. (1905/6): *Historia de la Noble Villa de Bilbao* L.G.E.V (1971.eko berrargitalpena), Bilbo.

Guillamón Álvarez, F. J. (1980): "Tensiones sociales en el municipio de Bilbao en la segunda mitad del siglo XVIII", in *Cuadernos de Investigación Histórica* **4**, 153-165.

Labayru, E. J. (1897/1901): *Historia General del Señorío de Bizcaya* L.G.E.V. (1971.eko berrargitalpena), Bilbo.

Mañaricua, A. E. (1954): *Las Ordenanzas de Bilbao de 1593*, Bilboko Udala, Bilbo.

Monreal Cía, G. (1974): *Las Instituciones Públicas del Señorío de Vizcaya (hasta el Siglo XVIII)*, Bizkaiko Aldundia, Bilbo.

Otazu y Llana, A. (1973): *El `igualitarismo´ vasco: mito y realidad*, Txertoa, Donostia.

Pérez Hernández, S. (2003): "Oligarquía y poder municipal en el tránsito del siglo XVI al XVII. Dos intentos de `introducir novedades´ en el Gobierno de la Villa", *Bidebarrieta* **XII**, 359-379.

Zabala Montoya, M. (2001): "Hutsunea bete nahian. Bilboko Udal kargudunak (1547-1798) (I)", *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País* **LVII-1**, 25-65.

9. Laburdurak

AJ, Korr: Atal judiziala, Bizkaiko Korregimendua.
BAHP: Bizkaiko Artxibo Historiko Probintziala.
BE: Bizkaiko Entzutegia.
BES: Bizkaiko Entzutegiko Sententziak.
BFAA: Bizkaiko Foru Aldundiko Artxiboa.
Bilbo, AA: Bilbo, Antzinako Atala.
DK: Deuseztaturiko Kontseiluak.
EE: Errege Eginkizunak.
EK: Errege Kontseilua.
Esk.: Eskribau.
K: Kutxa.
MAHN: Madrilgo Artxibo Historiko Nazionala.
NA: Notal Atala.
PS: Paper-sorta.
SAO: Simancaseko Artxibo Orokorra.
UA: Udal Atala.
VEKA: Valladolideko Errege Kantzelaritzako Artxiboa.